

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Asteartea, 2012ko azaroaren 13a. IX. urtea. 2.432. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Greba mugagabea hasi dute Tolosako SAM enpresako langileek

Atzo hasi zuten lanuztea pasa den astean enpresak 8 lankide kaleratzea erabaki zuelako; azken albisteak da kaleratu bakoitzari 3.000 euro gehiago eskaini dizkietela

Lantegiko tailerreko langileek hasi dute greba, baina bulegoetan baten bat lanera joan zen, nahiz eta azalpenak eman ondoren, ez ziren lanera sartu **02**



SAM enpresako langileek elkarretaratzea egin zuten atzo, lantegiaren atarian, sindikatuetakoa ordezkariek zuzendaritzarekin zeuden bitartean. I. URKIZU

### Frankistek Villabonan egin zutena bildu dute liburu batean

Amenabarrok, Aranburuk eta Almorzak egin dute 'Frankismoaren aztarnak arakatzen' liburua **03**

### Ramon Otegi eta Amaia Arrue lehenak Behobia- Donostian

Otegi 1:06:52ko denbora egin du, eta Arruek 1:25:17 behar izan ditu **07**

### Gainditzen pozik, zinema jaialdiak emandakoarekin

'96 horas' lanak irabazi du zeinu hizkuntzako jaialdiko film labur onenaren saria **04**



Irabazleak, epaimahaikideak eta aurkezleak, Leidor aretoan. J. AMONARRIZ

### Ruben Saralegi leitzar aizkolaria Bigarren Mailan ariko da datorren denboraldian **06**



AZAROA 15 - 18  
TOLOSAKO  
BABARRUNAREN  
ASTEA 2012

AZAROA 17 TOLOSAKO  
BABARRUN EKIZIAREN  
LEHAKETA ETA AZOKA BEREZIA

AZAROA 18 LEHAKETA GASTRONOMIA  
ETA BAZKAR HERRIKOIA



# AZOKA BEREZIA:

OKAZO BERTAN HASI ETA EGUNERO 2AK BITARTEAN, TRAMUOLA PLAZAN EDURO LABELA DUEN BABARRUNA (ZARRO DA HAZIA), HAZI ETA HONKIN LOTURUN HANBAT PRODUKTU ERRE JASERARI (ZARRO DUEN BABARRU POPARRA, BABARRUNA, ODOLEA, SAHESKIA, URDUA, ANDOA...

## Villabonako Udalak Oilasko Jokoaren azalpenak eman ditu

**Erredakzioa** Amasa-Villabona

Villabonako Udalak orain gutxi hedabide batek Amasako Oilasko Jokoaren harira ateratako informazioa oker dagoela esan du, azalpenak emanez. Salatu duenez, komunikabideak udalaren hitzak «manipulatu» ditu.

Ateak, Animaliei Tratu Etikoa Ematearen Aldeko Elkarrekin, Amasan San Martin jailetan egin izan duten Oilasko Jokoa salatu zuen eta udalari debekatzeko eskatu. Udalak, zentzu honetan, Amasako Martina kultur elkarrekin egiten duen lana txalotzen duela esan zuen. «Nolanahi ere, udal taldearen ustez, festaren zentzua une garai berrietara egokitu behar dira», azaldu zuen.

## Jose Antonio Pagolaren hitzaldia, bihar, Berdinbidek antolatuta

**I. Urkizu** Tolosa

Berdinbidek, Berdintasunaren alde eta Genero Indarkeriaren kontrako Gizonezko Elkarrekin, hitzaldia antolatu du, bihar, 20:00etan, Topic zentroko aretoan.

*Maite al du Jesussek emakumea?* izango da gaia, eta Jose Antonio Pagola apaiza izango da hizlaria. Berdinbidek, Antxon Banderesen omenez antolatu du jardueraren.

Pagolaren irudia nabarmendu dute antolatzaileek, euskal elizgizonentzat «ezinbesteko erreferentzia» dela esanez, eta gogora ekarri dute haren *Jesus. Aproximación histórica* liburuak sortutako polemika.



Ordezkariek langileei helarazi zieten, enpresako zuzendaritzak egindako proposamena. I. URKIZU

# LABen ustez, SAMko greba mugagabea «kaleratuen esku» utzi du enpresak

Kaleratu bakoitzari 3.000 euro gehiago eskaini zizkieten atzo, eta erabaki bat hartu behar dute orain

**Itzea Urkizu** Tolosa

Atzo bertan hasitako greba mugagabearekin jarraitzea «zortzi kaleratuen esku utzi du SAM enpresako zuzendaritzak», LAB sindikatuko ordezkariak azaldu dutenez. Kaleratutako langile bakoitzari 3.000 euro gehiago ematea proposatu du zuzendaritzak, eta baldintza hau onartzea edo ez onartzea erabaki beharko dute kaleratutako langileek, sindikatua, zuzendaritza eta abokatuak.

SAMko langileetako batzuek zenbait akzio dituzte enpresan, eta hain justu, kaleratutako zortzi akzioak dira. Akzioen gehiengo duen enpresa (%89), ordea, Tompla multinazionala da: «Hauek ez dute kaleratuen akzioak erosteko obligaziorik, eta ez baldin badituzte erosten, noski, akzioak enpresan bertan gertatzen dira», azaldu dute LABeko ordezkariak.

Pasa den astean SAMko zuzendaritzaren proposamena, honako izan zen: kalte-ordainez gain, kaleratu bakoitzari, akzioen truke 12.000 euro ordaintzea. LABeko kideek, ordea, argi utzi nahi izan dute, «langile bakoitzaren akzioen balioa 15.000 eurokoa» dela. «Beti mehatxuekin aritzen dira, eta prezioa eurek jartzen dutela esan zuten; kaleratuek ez baldin bazuten hori onartzen, ez zizkietela akzioak erosiko», azpimarratu dute.

Egoera honen aurrean, sindikatuetako ordezkariak negoziatzaileekin bideak ireki nahi izan zituzten, joan den astean: «Akordio ekonomiko batzuetara iristea zen helburua, baina zuzendaritzak ez zuen halakorik nahi izan, eta hau dela eta hasi gara greba mugagabearekin», nabarmendu dute langileek. Aipatzekoa da, greba deialdia aho batez onartu zutela SAM enpresan ordezkariak sindikala duten LAB, CCOO eta independentistek.

Horrela beraz, atzo, goizean goiz grebalari talde bat informazio ematera bertaratu zen SAM lantegira, eta bulegoko zenbait langile bertan zeuden: «Azken batzarrean izan ez zirenez, egoera zein den azaldu diegu, eta behin-

tzat, ez dira lanera sartu». Zuzendaritzako kideak soilik geratu ziren, beraz, lantegian.

**Baldintzak onartu ala ez**

12:00etan elkartu ziren, atzo, langileak, lantegiaren atarian elkarretaratzea egiteko. Ordezkariak SAMko zuzendaritzako kideekin bilduta zeuden artean, eta jakin-mina eta tentsioa nabari zen.

Langileen asaldatzearen, eta antolatutako mobilizazioen aurrean, Tompla multinazionalako zuzendaritzak «oso larrituta» deitu zuen SAM lantegira, LABeko ordezkariaren arabera, beren eskaintza jakinarazteko: langile bakoitzari 3.000 euro gehiago ematea proposatu zuten.

LABeko ordezkariak azaldu dutenez, ordea, «kaleratzeen aurka protesta egiteaz haratago, beste zerbait» nahi dute: «Urte bete daramagu kaleratzeekin, soldata jaitzirekin, enplegu erregulazio txostenekin... Horrela ez da posible lan egitea, tentsioan etortzen baikara lanera». Honen aurrean, beraz, zuzendaritzari zenbait konpromiso eskatu dizkiete, «lantegian lasaitasun pixka bat izateko». 2013ko aurrekontuak aurkeztetakoan, akordio batera iritsiko direla esan diete zuzendaritzako kideek.

Zuzendaritzak aurkeztutako baldintzen aurrean kaleratu guztiak ados jartzea zaila izango dela uste dute sindikatuen ordezkariak, «besteak beste, adin desberdintasunak medio, batzuk besteak baino egoera okerragoan gertatu baitira». Lankideek, ordea, eurek hartutako erabakia onartuko dutela diote.

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

## Irudia › Tolosa



## JUSTIZIA TASAK HIZPIDE

Espainiako Senatuak gaur bertan onartuko du justizia tasen lege berria; auzitegieta joaten diren herritarren kopurua arrazionalizatu nahi du modu honetara Espainiako Gobernuak, «doako justizia finantziatzearekin batera». Honen aurrean protesta egin zuten atzo, Tolosako epaitegiaren aurrean, zenbait abokatuk, epailek eta prokuradorek: «Herritarrei auzitegieta sartzea oztopatuko du legeak, eta zerga gehiago biltzea du helburu». ENERITZ MAIZ



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

### ↓ Iragarki laburrak

#### ALOKAIRU BILA

**Trastelekuak.** Alokairuan hartzeko trasteleku bila nabil, Tolosaldean bertan. Interesa duen edonork, dei dezala honako telefono zenbakira: 620 74 75 43.

#### LAN BILA

**Etxeko lanak.** Etxeko lanak egin edota hurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. 943 69 68 82 / 606 52 19 92

# Frankismoak Amasa-Villabonan utzi zuena azaleratzen duen lana, kalean

Pello Aranburuk, Esti Amenabarrok eta Karlos Almorzak egin dute 'Frankismoaren aztarnak arakatzeko' liburua

**Iñigo Terradillos** Amasa-Villabona

Frankismoak Amasa-Villabonan utzi zuenaren isla da *Frankismoaren aztarnak arakatzeko*. Frankistek herrian egin zuten dokumentatzen du, hala nola, «Espainiako armada nola bizi zen, gobernadore zibilak zuen boterea edota herritarrek jasan zuten errepresioa». Eta, hain justu, azken hauei «askatasuna lortzeko askatasuna galdutako herrikideei» gorazarre egitea du helburu. Bi urteko lanaren emaitza aurkeztu zuten iragan ostiralean, Galder Azkue Villabonako alkateak, Pello Aranburu eta Esti Amenabarro liburuaren egileek (Karlos Almorza da hirugarren egilea) eta Iñaki Egaña Euskal Memoria elkarteako presidentek. Villabonako Mintzola fundazioan izan zen ekitaldia, eta herritar ugari bertaratu zuten.

Frankistek Amasa-Villabonan utzi zutenaren interpretazio dokumental bezala definitzen dute egileek *Frankismoaren aztarnak arakatzeko: Amasa-Villabonako frankistek idatzita utzi zituzten liburua*. Frankismoa zer izan zen islatu nahi dute liburuan bildu dituzten 416 dokumentuekin. Villabonako udaletxeko artxiboan aurkitutako dokumentuak dira. Hain zuzen ere, bertan aurkitu zutenarengatik erabaki zuten liburu bat osatzea: «Harrituta geratu ginen hainbeste dokumentu ikustean, ez baitugu uste beste inon hainbeste gorde direnik, txikitu, ezkutatu edota erre egiten baitzituzten», adierazi zuen Pello Aranburuk.



Galder Azkue, Pello Aranburu, Esti Amenabarro eta Iñaki Egaña, liburuaren aurkezpenaren ir.

Bada, aurkitutako bi mila dokumentu horiek gordetzen zuten informazioarengatik, eta herrian gisa horretako lanik artean egiteko zegoenez, bilduma edo liburu bat osatzeko helburuarekin lanean jarraitu zuten.

## Armada eta gobernadorea

Artxiboan topatu zituzten dokumentu eta frogekin eta bakoitzari eginiko interpretazio laburrekin dago osatua lana, eta atalka banatua gaiaren arabera. Lehenengo atalak, esaterako, Espainiako armada nola egon zen Amasa-Villabonan agintzen irudikatzen du. «Armadaren gastu guztiak udaletxeak ordaintzen zituela jabetu gara dokumentuei erreparatuta, edota billabonatar ugarik utzi egin beharra izan zutela herria eta errepresio handia jasan zutelako», dio Aranburuk.

Bigarren atalean, gobernadore zibillaren papera agerian geratzen da: «Villabonan eta ia Gipuzkoa osoan berak agintzen zuen, berak

erabakitzen zuen guztia, eta udala bere menpe zuen», gehitzen du. Hirugarren atalean frankistak ez ziren herritarren bizitza eta jasangarria sufimendua islatzen duten dokumentuak jaso dituzte. Halaber, 450 pertsonaren izenak ere zerrendatu dituzte. «Dokumentatzea lortu dugunaren arabera, horiek dira errepresioaren biktimak izan zirenak».

Aurkitu dituzten dokumentu hauek guztiak gaztelaniaz idatzita daude, eta agerian geratzen da «euskara desagerrarazi egin zutela eguneroko bizitzatik».

## «Emozioa eta mina»

Esti Amenabarrok adierazitakoa arabera, «liburuak emozioa eta mina dauka». «Hunkigarria izan da hainbat billabonatarrekin, protesta egin eta egoerari aurre egin zioten emakumeekin, euren bizipenen inguruan hitz egitea». Horiek guztiak ahaztuak izan direla dio, «ia beti irabazleen historia kontatzen baita», eta me-

rezi duten aitortza egin asmo dute, lan honekin.

Dagoeneko hasiak diren lanaren bigarren zatian izango da hori, izan ere, Amenabarrok dioten moduan, «liburu hau hasiera baino ez da». «Lehen lan honek garai zehatz bat dokumentatzen eta arakatzeko du, eta Frankoren aldekoek Amasa-Villabonan egin zutena islatzen du». Bigarren liburuan testigantzak eta lekukotasunak bilduko dituzte. «Emozioak eta bizipenak jaso nahi ditugu, eta horretarako, sufritu zuten pertsona horiei ahotsak jarri, eta zer gertatu zen eta nola galdetuko diegu», dio Amenabarrok.

Lan honetan babesa eta laguntza eman dieten guzientzat esker hitzak izan zituzten egileek aurkezpenaren. «Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskal Memoria fundazioa, Aranzadi elkarte eta Villabonako Udala, eta bereziki, bertako kultura eta euskara zinegotzia den Nora Urbizuren laguntza eskertu nahi dugu».

## → Laburrak

### Nerabe eta gurasoen arteko erlazioaz hitzaldia

**LEITZA** ▶ Nerabeek euren gurasoei dituzten komunikazio zailtasunen inguruko hitzaldia izango da gaur, Amazabal institutuko liburutegian, 16:00etatik aurrera. Amazabal guraso elkarteak antolatutako ekimen hau gurasoei, irakasleei nahiz gaiarekiko interesa duen edonori zuzendua dago. Gotzon Carcar *coach*-ak emango du hitzaldia, eta seme-alabek gurasoei entzunarazteko gomendioak emango ditu.

### Jaietako argazkien kopiak egiteko aukera luzatu dute

**IBARRA** ▶ San Bartolome jaietako argazkiekin erakusketa egon da orain gutxira arte Ibarriko kultur etxean. Bada, argazkiak ikusterik izan ez zuten jendearentzat, azken aukera bezala, beste 15 eguneko epea zabaldu dute, argazkiak albumetan ikusi ahal izateko. Kultur etxeko harreran ikusi ahal dira, eta, nahi izanez gero, kopiak eskatu, azaroaren 23ra bitarte. Goizez, 10:00etatik 13:00etara, eta arratsaldean, 16:00etatik 20:30era izango da ordutegia.

### Garraio publikoari buruzko bilerak, bihar eta etzi

**TOLOSALDEA** ▶ Gipuzkoako Foru Aldundiak, Tolosaldea Garatzenen eta udalen laguntzarekin, eskualdeko garraio publikoaren proposamen berria diseinatu du. Proposamena eskualdeko errealitatera egokitu dadin eta mugikortasun beharrei erantzun egokia eman diezaion, Tolosaldea Garatzenek partehartze prozesu bat jarri du abian. Bada, bihar, Zizurkilen eta etzi, Abaltzisketan, bilera egingo dute, herritarren eta eragileen iritzia jasotzeko. 20:30ean hasiko dira bilerak.

# Babarrun onenak prestatzen dituen ibartarraren bila

Babarrun jatearen barruan, Babarrunaren III. Lehiaketa Gastronomikoa egingo dute, azaroaren 25ean

**I. Terradillos** Ibarra

Hauspoea elkarteak urtero antolatzen duen Babarrun jatearen barruan, Babarrunaren III. Lehiaketa Gastronomikoa egingo dute azaroaren 25ean, Ibarriko Bela-

bieta pilotalekuan. Dagoeneko bertan izena emateko aukera zabaldu dute. Zubiaurre, Txumitxa, Atari eta Sendi Ekintza tabernetan egin ahal da, azaroaren 22a baino lehen.

Sukaldariak 09:00etan hasiko dira babarrunak prestatzen, eta 13:00etarako aurkeztu beharko diote platera epaimahaiari. Ibartarrek soilik izango dute lehiaketan parte hartzeko aukera, eta gehienez 22 parte-hartzaile onartuko dituzte, banaka nahiz bikotea. Sukaldeak izen emate hu-



Iazko txapelketa irabazi zuen Alberto Zubelzu, txapela jasotzen. HITZA

rrenkera jarraituz banatuko dituzte.

Antolazaleek jarriko dituzte sukaldari bakoitzaren esku sukaldia, gasa, ura, eta babarrun kilo bat. Gainerako osagaiak eta ontziak parte hartzaile bakoitzak jarri beharko ditu.

Irabazleak txapela eta Ibarriko Danon Txokoa taberna gastatzeko 100 euro irabaziko ditu. Gainera, bai irabazleak bai eta gainerako parte hartzaileak ere, herri bazkarira gonbidatuta egongo dira.





Zeinu hizkuntzan egindako zinema jaialdiko sari banaketan, irabazleek, antolatzaileek eta parte hartzaileek, oro har, talde argakia atera zuten. **L. AGUIRRE**

# '96 horas', filmik onena

Zeinu hizkuntzan egindako zinema jaialdiak 450 bat persona bildu zituen, Leidor artean, lanak ikusteko

## Rebeka Calvo

Gaitzitzen Goleteriko eta Tolosaldeko pertsona gorren elkartea oso pozik dago zeinu hizkuntzan egindako zinema jaialdiak emandakorekin. Ekitaldiak ostegunetik hasi ziren *El obrero de los paces*

filmaren emanaaldiarekin, eta leihatilan jasotako dirua gorak eta itsuak diren pertsonen sentarabetea elkarrekin, Apascek, jasoko du.

Egun nagusia, hala ere, larunbatuan izan zen. Leidor zinemaren 450 pertsona bildu ziren film labu-

rrak zein iraupen eritikoak ikusteko eta ikuslegoari pelikulak asko gustatu zitzaizkela azaldu dute. Sari nagusia, film labur onenaren saria, Bartzelonako *96 horas* pelikulak irabazi zuen, eta zuzendaria onenarena, Aizla, Eugenia Arteagak. *El círculo* filmarengatik.

**Jaialdia bukatzeko, afaria** Sariaik Gozalde Nuñez eta Ainhoa Alerbe aktoreek, Donostia zinegoietako Igor Otxoa zuzendaria, Tolosako Miren Urkioa zinegoziak, Gaitzitzeneko Albetxo Etxeberria lehenaldaria eta zinemaldirio arduradunak, Julian Rodriguezek, banatu zituzten. Sari banaketa eta gero, jaialdiko antolatzaile, parte hartzaile eta ikusletako asko erretrotruduen egoitzara joan ziren afaltzeri, eta ondoren, alde zaharrera eraman ziren.



Lehen irudian, eskubian, *96 horas* filmeko auzendaria, eta bigarren irudian, Marga Mendoza, emakumezko aktorerik onena. **L. AGUIRRE**

Egin HITZAko harpidedun azaroaren 30a baino lehen

eta jaso Mahala baserriko produktuez osatutako saski ederra

## OPARI

eta...

...HITZAren harpidedunen artean bi pertsonentzako harri botanikodun masaje geotermala (30') + Jacuzzi sesioa zozkatuko dugu

hitza **harpidedunentzako:** 202 92 02 01 [harpidedun@hitza.info](mailto:harpidedun@hitza.info)

## Sariak

- **Film laburrik onena.** 96 horas, Bartzelona.
- **Zuzendaririk onena.** Eugenia Arteaga *El círculo* filmarengatik, Santa Cruz.
- **Gidoirik onena.** Eugenia Arteaga *El círculo* filmarengatik, Santa Cruz.
- **Muntatzaierik onena.** Jose Ramon Domenech *Imperfecte* pelikularengatik, Bartzelona.
- **Argazkierik onena.** Louie Blystad-Collins *Life out there* lanarengatik, Ingalaterra.
- **Emakumezko aktorerik onena.** Marga Mendoza *Mamá y yo*, Madrid.
- **Gizonzko aktorerik onena.** Sean Richards *Life out there* pelikularengatik, Ingalaterra.
- **Ikusle onena.** *Imperfecte*, Bartzelona.
- **Epamahiaren sari berezia.** *Yo, Madrid*.

**TX** sarrerak

zozketa

"Frankismoaren aztarnak arakatzen" liburuen bi ale

hitza **Zozketan parte hartzeko detu osteguna 14:30ak baino lehen 943 65 56 95 telefono zenbakia.**

## Alkiza-Amasa



## SAN MARTIN JAIKAK OSPATU DITUZTE

Bukatu dira Alkiza eta Amasako San Martin jaiak. Hainsegur izan zen San Martin eguna, baina ekitaldiak asteburu guztian zehar izan dituzte. Larunbat goizean, Amasan, txikienek herri krosa (bigarren irudia) egin zuten, eta Alkizan ere gazteak izan ziren protagonista, txerria harrapatzen aritu baitziren frontoian jarritako hesaren barruan (lehen irudia). Azkenean, batetik, Jon eta Aritz izan ziren garaliek, eta txikiagoen artean, al-diz, Asier eta Martin. **L. AGUIRRE**

teak izan ziren protagonista, txerria harrapatzen aritu baitziren frontoian jarritako hesaren barruan (lehen irudia). Azkenean, batetik, Jon eta Aritz izan ziren garaliek, eta txikiagoen artean, al-diz, Asier eta Martin. **L. AGUIRRE**

## Gaztelu



## AZOKA BEREZIA EGIN DUTE

Gazteluarek kultur ekitaldi batetako asteburua izan dute. Larunbatean, haurrek babarrun jatea egin zuten elkarrean, eta ondoren, jokoa egin zituzten. Eguna Gazta zati bat ikusiz eta kantu ofortari batekin amaitu zuten. Igan dean, azoka egin zuten goizean (irudian) eta ondoren, erretrotruduen bazkariaren txanda izan zen. **L. AGUIRRE**

## Amezketak



## TXIKIEN KROSA

Amesketan pasa den ostiraan hasi zuten kultur astea, eta larunbat goizean txikienek herri krosan aritu ziren (irudian). Gaur ere izango dituzte ekitaldiak: erretrotruduei zuzendutako *Bizitza* autonomorako trebetasun hitzaldia izango da 17:00etan, kultur etxean, eta 20:30etan *Gazta zati* bar botako dute. **HITZA**

## Tolosa MUS FESTA, BEOTIBARREN

Beotibar frontoian 136 bikote elkaru ziren larunbat arratsaldean XI. Mus Txapelketa Azkiora lehiaketan parte hartzeko. Frontoi kafetegiak antolatutako txapelketa, eta Babarrunen Astearen barruko ekitaldia izan zen. **L. AGUIRRE**



## Tolosa



## 'DUPLEX', ONENA

Larunbatean Ferialekuak jendez lepo egon zen Euskal Herriko IV. Friso Txapelketa ikusteko. Guztira 63 buruko hartu zuten parte, eta irabazlea Iratzoze (Nafarroa). *Duplex* izeneko behia izan zen. Bigarren sardunaren izena ere Duplex da, baina hau Astasuko Zabal Errekondo ganadutegia da. **L. AGUIRRE**

## Tolosa



## SKATE-EAN IBILI DIRA

Donberean, 15. urteumeneko ekitaldian barruan eta urteroko ohiturari jarraituz, skate festa egin zuten larunbat arratsaldean. Gazteak izardi latza bota zuten skate arketak txukunak egiteko, eta ikuskitzupolita eskaini zuten. Honekin batera, eta egun guztian, graffiti erakustaldia egin zuten. **L. AGUIRRE**

## Tolosa



## SAHARAREN ALDE

Sahararen autodeterminazio eskubidea eta independentzia defendatzeko ekarretaratzeko egin zuten pasa den ostegun iluntzean Trianguloan, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin delituta. Era berean, Godeim izik izeneko kanpaldiko gertaren ikus-entzunezko bat ere ikusi ahal izan zen. **L. AGUIRRE**

**Kirolak**

↓ **Kirol emaitzak**

<b>PILOTA</b>	
<b>LEHEN MAILAKO LAU</b>	
<b>T'ERDIKO TXAPELKETA</b>	
Arretxe II	12
<b>Bengoetxea VI.a</b>	22

Martinez de Irujo	22
<b>Barriola</b>	10

<b>Sailkapena</b>	
<b>Lehen taldea</b>	
1. Olaizola II	2-0
2. <b>Bengoetxea VI</b>	2-1
3. Arretxe II	1-2
4. Xala	0-2

<b>Bigarren taldea</b>	
1. Berasaluze VIII	3-0
2. Irujo	2-1
3. <b>Barriola</b>	1-2
4. Retegi Bi	0-3

<b>FINALERDIAK</b>	
Berasaluze VIII	
<b>Bengoetxea VI.a</b>	

Olaizola II	
Juan Martinez de Irujo	

<b>ARETO FUTBOLA</b>	
<b>HIRUGARREN MAILA</b>	
<b>8. jardunaldia</b>	
<b>Ibarra- Goierri</b>	7-1
Soloarte- <b>Tolosala Hirukide</b>	5-9
<b>Egintza-Laskorain</b>	2-5

<b>Sailkapena</b>	
<b>1. Ibarra</b>	24 p
2. Bilbo	19 p
3. <b>Tolosala Hirukide</b>	17 p
10. <b>Laskorain</b>	11 p
12. <b>Egintza</b>	7 p

<b>Hurrengo jardunaldia</b>	
Inter Eder- <b>Ibarra</b>	
<b>Tolosala Hirukide-Egintza</b>	
Santurtzi-Laskorain	

<b>FUTBOLA</b>	
<b>ERREGIONAL OHOREZKOA</b>	
<b>9. jardunaldia</b>	
<b>Tolosa CF-Beti Gazte</b>	1-1

<b>Sailkapena</b>	
1. Hernani	27 p
2. Touring	19 p
3. Oartzun	18 p
5. <b>Tolosa</b>	15 p

<b>Hurrengo jardunaldia</b>	
Mondragon CF- <b>Tolosa CF</b>	

<b>AIZKORA</b>	
<b>III. MAILAKO EUSKAL</b>	
<b>HERRIKO TXAPELKETA</b>	
<b>Finala</b>	
1. <b>Ruben Saralegi</b>	12:56
2. Arkaitz Jauregi	13:48
3. Julen Kañameres	14:35
6. <b>Asier Pellejero</b>	16:52

<b>SOKATIRA</b>	
<b>GOMA GAINEKO EUSKAL</b>	
<b>HERRIKO TXAPELKETA</b>	
<b>320 kilotan, lehen jardunaldia</b>	
<b>A multzoa</b>	
1. Sokarri A	6 puntu
2. <b>Ibarra A</b>	5 p
3. Abadiño A	4 p
<b>B multzoa</b>	

1. Abadiño B	6 puntu
2. <b>Ibarra B</b>	5 p
3. Napurrak	4 p

<b>Bigarren jardunaldia</b>	
Azaroaren 17an, Zeberion.	

<b>ATLETISMOA</b>	
<b>BEHOBIA-DONOSTIA</b>	
<b>LASTERKETA</b>	
<b>Lehen sailkatuak herriz herri</b>	
<b>Abaltzisketa</b>	
920. Mikel Senperena	1:18:47
<b>Aduna</b>	
1.375. Liher Etxeberria	1:20:54
17.652. Maider Artola	1:54:01
<b>Albiztur</b>	
1.390. Isidro Condado	1:20:59
<b>Alegia</b>	
335. Juan Mari Garin	1:14:37
9.285. Maitane Agirre	1:37:27
<b>Altzo</b>	
603. Iñaki Murua	1:16:51
18.641. Amaia Aranalde	1:57:03
<b>Ametzeta</b>	
1.175. Iosu Gofi	1:20:03
<b>Anoeta</b>	
572. Andoni Saldias	1:16:39
6.065. Leire Labaka	1:32:01
<b>Asteasu</b>	
1.661. Iñaki Irazu	1:22:02
12.045. Amagoia Otegi	1:41:56
<b>Baliarrain</b>	
10.687. Iosu Ozaita	1:39:36
<b>Belautza</b>	
3.774. Jon Arregi	1:27:37
<b>Berastegi</b>	
1.044. Iker Saizar	1:19:29
12.928. Elena Zubelzu	1:43:32
<b>Berrobi</b>	
116. Ibai Madina	1:10:32
10.017. Iosune Alberdi	1:38:33
<b>Bidegoian</b>	
6.408. Naiara Eloa	1:32:37
<b>Elduain</b>	
16.322. Koldo Etxetxipia	1:50:26
<b>Gaztelu</b>	
24. Juan Ramon Otegi	1:06:52
<b>Hernalde</b>	
14.730. Francisco Javier Fernandez	1:46:58
<b>Ibarra</b>	
90. Beñat Doyharzabal	1:09:48
5.930. Agurtzane Alkaigaga	1:31:44
<b>Ikaztegieta</b>	
10.163. Jon Ipentza	1:38:48
<b>Irua</b>	
69. Unai Señorán	1:08:58
6.959. Sonia Muñoz	1:33:41
<b>Larraul</b>	
1.890. Andoni Rekondo	1:22:51
<b>Leitza</b>	
1.294. Iñigo Dorronsoro	1:20:37
19.739 Itziar Barinaga	2:01:51
<b>Lizartza</b>	
17.551. Ainara Alvarez	1:53:46
<b>Orendain</b>	
18.343. Nekane Kerejeta	1:56:01
<b>Orexa</b>	
1.398. Garikoitz Balerdi	1:21:01
<b>Tolosa</b>	
78. Joseba Jauregi	1:09:39
2.766. Amaia Arrue	1:25:17
<b>Amasa-Villabona</b>	
205. Enrique Piedra	1:12:41
<b>Zizurkil</b>	
273. Aitor Goenaga	1:13:42
7.111. Itziar Lekuona	1:33:56

# Hirugarren Mailako Euskal Herrikoa irabazi du Saralegik

Ruben Saralegi leitzarrak hurrengo sasoiari Bigarren Mailan jokatu du; seigarrena izan da Asier Pellejero

**A. Imaz**

Ruben Saralegi leitzar gazteak 52 segundoko alde atera zion herenegun Arkaitz Jauregi txapeladunordeari. Ondorioz, biek lortu zuten heldu den sasoiari Euskal Herriko II. Mailako Aizkora Txapelketan lehiatzeko txartela. Nafarroako Aldaz herrian jokatu zuten III. mailako aizkora txapelketaren finala. Sei aizkolari ir-

ten ziren pilotalekuko kantxara, txapela lortzeko asmoz: bost nafar eta arabar bat. Sailkapen fasean bezala, azkarrena Ruben Saralegi izan zen. Leitzarrak marka bikaina lortu zuen, 12:56ko denborarekin. Bigarren postuan Arkaitz Jauregi sailkatu zen, eta seigarren, Asier Pellejero aresoarra, 16:52ko denborarekin. Aizkolariak hiru kanaerdiko eta bi 60 ontzako ebaki zituzten. Kanporaketetan bezalaxe, Saralegik oso lan txalagarria egin zuen, eta lehen aizkorakadatik hartu zuen probaren burua. Hirugarren enborra ebakita, 19 segundoko alde atera zuen Jauregirekiko, eta azken aizkorakada eman bitartean, alde aereagotzen joan zen.



Ruben Saralegi leitzar, Adania sariko finalean, zutikakoan. SARA GOMEZ

# Gipuzkoako Pista Saria indartsu hasi du Leire Olaberria ikaztegiatarak

**A. Imaz** ikaztegieta

2012-13 Gipuzkoako Pista Sariako lehen jardunaldia jokatu zen herenegun. Leire Olaberria ikaztegiatarak lehen postua eskuratu zuen, Fullgas.org taldearen elastikoa soinean zuela. Olaberriak, garaipen honi esker, 28 puntu eskuratu zituen lehen jardunaldi honetan.

Londresko Olinpiar Jokoen ondoren, Olaberriak atsedenaldira hartu zuen. Tarte horretan, garaipenak lortzea zer den ez zaiola ahaztu erakutsi zuen igandean ikaztegiatarak.

Bigarren postuan Aner Iriarte sailkatu zuen. Limousin taldeko kideak 23 puntu eskuratu zituen. Olatz Ferranen atzetik, Irene Usabiak lortu zituen laugarren postuak eskaintzen dituen puntuak. Usabiaga ordiziarraren arren, Tolosa CF taldearekin aritu izan da txirridularitzan.



Leire Olaberria ikaztegiatarra. G.G.

# Laskorainek irabazi du Egintza taldearen aurkako derbia, 2 eta 5eko emaitzarekin

Ibarrak 7-1 irabazi dio Goierri, eta sailkapeneko lehen postuan sendo jarraitzen du

**Erredakzioa**

Aitzineko bi jardunaldietan bi berdinketa mingarri pairatu ostean, Laskorainek denboraldiko hirugarren garaipena erdietsi zuen pasa den larunbatean, Villabonako Olaederra kiroldegian. Egintza taldeak, aldiz, horitxoen aurrean amore eman behar izan zuen.

Derbia ez zen batere samurra suertatu. Lehen zatian, Laskorainek eman zuen aginte makila jo-

koan, baina markagailuan lehen gola billabonatarrek lortu zuten, 10 metroetatik. Aldageletara, lehen zatian amaieran, emaitza horrekin joan ziren bi taldeak.

Bigarren zatian jokoak ez zuten aldaketarik jasan, eta laskorain-darren nagusitasuna are eta nabarmenagoa bihurtu zen, baita markagailuan ere. Horitxoen hiru gol sartu zituzten jarraian, baina etxekoen kemena tarteko, jokoaren erabat orekatu zen; jokaldi bikain batean Egintzak 2-3koa lortu zuen. Hiru puntuak dantzan ziren berriro, eta ez zegoen batere argi nora eroriko ziren.

Eñaut Vazquez izan zen Laskoraini lasaitasuna eman ziona. Presinean baloia lapurtu, jaurtiketa bortitz bat egin eta gola, harrobetik igo berria den jokalaria ba-

kar bakarrik egin zuen dena. Partidaren hondarreen lortu zuten tolosarrak azken gola, 2-5ekoa.

**Ibarra eta Tolosala**

Sailkapen orokorra begiratu gero, lehen postuan Ibarra dago, eta hirugarrenean Hirukide Tolosala. Asteburuan, horren zergatia argi gelditu zen. Ibarrak etxean eroso irabazi zion Goierri taldeari, 7-1eko emaitzaz. Hirukideko mutilek etxetik at lortu zuten garaipena, gol askoko partida batean. Amaieran, tolosarrentzat izan ziren hiru puntuak, 5-9ko markagailuarekin gainditu baitzuten Soloarte taldea.

Iragan asteburuan bezala, hurrengoan ere derbya egongo da. Kasu honetan, Tolosala Hirukide Egintza hartuko du etxean.

**Ramon Otegi** • Korrikalaria

Behobia-Donostia 24. postuan amaitu du Ramon Otegik, 1:06:52ko denborarekin; beteranoen sailkapenean bigarren postuan amaitu du, eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko azkarrena izan da gazteluarra.

# «Lesio bat medio, azken bi urtetan korritu dudan lehen lasterketa izan da»

**A. Imaz** Gaztelu

Lasterketa herrikoa bukatu bezain pronto, etxerako bidea hartu zuen Ramon Otegik (Gaztelu, 1971), herenegun. Podiumera igo behar zuela telefonoz jakinarazi zioten Behobia-Donostiako antolatzaileek, baina berandu, itzulerako bidean baitzen. Bi urteko geldialdiaren ondoren, lesio batengatik, berriro itzuli da lasterketa mundura gazteluarra.

**Sailkapen nagusia 24.a, betaranoetan bigarrena, Tolosaldeko eta Leitzaldeko lehena... ez dira nolana hiko emaitzak.**

Egia esan oso gustura gelditu naiz lortutako emaitzarekin. Bi urte lasterketak utzita egon naiz lesio batengatik, eta oso gustura nago. Orkatileko arazo batekin ibili naiz, eta duela lau-bost hilabete hau preparatzeko asmoz hasi nintzen.

**Azken bi urte hauetan korritu duzun lasterketa bakarra izan da, beraz, igandekoa.**

Bai, horrela da. Gainera, duela bi aste orkatila bihurtu nuen, eta bost egunetan geldirik egon nintzen, kili-kolo. Ondoren, bi egunetan proba egin eta ez korritzeko pena ematen zidanez, ateratzea pentsatu nuen.

**Zein helbururekin joan zinen lasterketara?**

Gutxi gora behera, jakin banekien denbora horretan ibiliko nintzela. Agian, 1:06 ez, baina bai 1:07 edo 1:08. Hirutan korritu dut Behobia-Donostia, eta nola diren

kontuak, hirurak 1:06ean egin ditut.

**Eguraldia ez zenuten lagun izan igandean.**

Eguraldi zakarra egin zuen lehen bost kilometroetan, benetan makurra. Hala eta guztiz ere, gero haizea ibilbidean zehar alde izan genuela uste dut.

**20.000 lagunetik gora elkartu zineten irteera puntuan. Zer dauka lasterketa honek?**

Oso herrikoa da, ingurukoa, eta niretzat zoragarria. Ibilbide bezala homologatu gabe dago, eta horrek ematen dit pena. Adinean aurrera goaz eta polita izango zen marka bezala hor lortutako denborak erregistraturik gelditzea. Bestela, esan bezala, etxean korritzen duzu, jende pilo mugitzen du, eta izugarri polita da.

**Podiumera igo al zinen, betaranoen saria jasotzera?**

Ettxera bidean nengoela deitu zidaten. Eguraldi horrekin, eta egoniko esfortzuekin... itzulerako bidea hartu nuen. Banekien bigarren egin nuela, lehenengo gelditu zena laguna baitut. Bera gali ziarrara da, eta hain juxtu, nire bidez etorri zen. Hala eta guztiz ere, ez nuen uste podiumera igotzeko ak ginenik. Polita izango zen, baina horrela suertatu zen.

**Eskualdeko lehena izatea, zer bait berezia al dazuzetatzat?**

Polita da. Betaranoetan bigarren gelditu nintzela baldin banekien ere, eskualdekoarena ez nekien. Anaiari gainera galdetu nion, eta berak baietz, ziurrenik lehena



FELIX SANCHEZ

izango nintzela erantzun zidan. Hirutan atera naiz eta hiruretan eskualdeko lehena izan naiz. Horrek beti ematen du poza, polita da.

**Lesioa gaintuta dagoela ikusi ondoren, hemendik aurrera zeintzuk dira zure asmoak?**

Kros zalea izan naiz betidanik, eta horretara itzuliko naiz. Goierri Garaia taldean ibili naiz beti, eta horrela jarraitzen dut. Taldeko batzuk maratoietan ibiltzen dira, eta hauei laguntzen saiatuko naiz ahal dudan heinean, erbilan eginen. Ondoren, kros denboraldia egiteko asmoa daukat.

**Amaia Arrue** • Korrikalaria

# «Denbora jaisteaz gain, lasterketaz gehiago gozatu dut»

**A. Imaz** Tolosa

Irribarretsu zegoen Amaia Arrue (Tolosa, 1979) lasterketaren ondorengo egunean. Eskualdeko lehena izateaz gain, bere iazko denbora 8 minututan hobetu zuen. Aurtengo bere bosgarren Behobia-Donostia izan da.

**Zein helbururekin joan zinen irteera puntura?**

Iaz 1:33an egin nuen, eta hori hobetu nahi nuen. Azkenean, egin dako denborarekin oso gustura gelditu naiz, baina gehienbat nola egin dudan kontuan hartuta. Ibilbide guztian zehar gozatu joan nintzen, oso sentsazio onekin.

**Iazkoarekin alderatuz, eguraldia erabat desberdina zen.**

Iaz beroarekin eta ez nintzen hain ongi ibili. Eurria eta horrelako eguraldia gehiago gustatzen zait, gusturago ibiltzen naiz. Bestalde, esker tzekoa da lasterketara horrenbeste jende gerturatzea. Giro oso berezia sortzen da ibilbidean zehar, eta horrelako eguraldiarekin horrenbeste jende ikustea... emozionatu egiten zaitu.

**Momentu gogorrik egon al zen lasterketan zehar?**

Gogorrena agian, irteera puntukoa izan zen. Lasterketa hasteko zain zaud, euriarekin, bustita... Behin korrika hasi ginenean, eta nire eritimoa hartu nuenean, gozatu joan nintzen. Amaieran, Groseko azken zuzenbidean, haizea atera zuen eta nahiko gogorra egin zitzaidan, baina oro har oso ondo joan nintzen.

**Urtebetean zortzi minutu hobetzen direnean, atzean zer dagoen argi gertatzen da.**

Konstantzia kontua dela esango nuke. Niri korri egitea asko gustatzen zait, eta urte guztian aritzen naiz. Fisikoki ongi harrapatu nau



HITZA

lasterketak, baina egia da, hainbeste jaiste ez nuela espero.

**Nolako sentsazioa da horrenbeste jenderen artean korri egitea?**

Hasieran beti kostatzen da zure lekua hartzea. Gero, ordea, denborak hobetzen baldin bazoaz, lehenago irteten zara, eta hor eritimoa azkarrago hartzen da. Dortsal zuria erkin ateratzen zarenean zailagoa izaten da, jende askoren artean baitzoz.

**Ibilbidean zehar, nola kontrolatzen duzu eritimoa?**

Kronometroa eta GPS-a duen ordulariarekin joan nintzen. Pulsumetroak eta horrelakoak ez zaizkit gustatzen, sentsazioen arabera joaten naizen horietakoa naiz. Korri egitea gustatu egiten zait, eta horregatik sentsazioei egiten diet kasu gehiago, baita entrenamenduetan ere. Iazko Behobian, ordulariari gehiegi begiratu nion, eta ez nuen horrenbeste gozatzeko lortu. Aurten hori argi nuen, ordulariari kasu gutxiago egin behar niola, eta horrela izan da: Denbora jaisteaz gain lasterketaz gehiago gozatu dut.

**Eskualdeko lehena izateak ba al du esanahirik zuzetatzat?**

Beti da pozgarria, ilusioa egiten duen zer baita da.

**Hilberriak eta urteurrenak**
**ESKELAK**

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

**JEXUXA ARANGUREN OLAZABAL**

(Asuatzeko joxuna)



Itzeli egin zara gure ta Aru, baina gordinik claudie zure harribat mezu. Nahiz Claudio Amanen

aitzoren zuzenari zu, Asuatzeko senda itzate utzi diezu. Orian Aman ondoreki lagun gaitzakizu.

Zure loba, biloba eta lagunak.

ASUATZA 2008ko urtearen 13an





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitateak:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta/Aldea:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak  
SM-ko kideak: **BERTAKO HEDABIDEAK**

Galtzaundi euskara taldea

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernalde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Agurrak



### Urte askoan!

**Uxue Iturbe Usabiaga (Irura).**  
Atzo 3 urte. Zorionak etxekoan partez.



### Urte askoan!

**Ekhiñe Iturbe Elola (Irura).**  
Gaur 6 urte. Zorionak Uxue eta Laieneren partez.

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
tolosaldean@hitza.info

●●●● agurrak

## Irudia Amasa-Villabona



## 'JAI ALAI BLUES' GRABATZEN ARI DIRA

Amasa-Villabonako herritarra den Angelito Ugarte izango du protagonista grabatzen ari diren filmak. *Jai Alai Blues* du izena pelikula, eta larunbatean, Villabonako Kale Nagusian edota plazan egin zituzten grabaketa lanak. Grabaketak ikusmina sortu zuen, eta jende asko gerturatu zen pelikula bat nola egiten den ikustera. Filmeko prota-

gonista Angelito Ugarte billabonar puntista da, eta *Txantxangorriezinez* ezaguna. Sao Paulon (Brasil) jaio zen, eta hamaika urte zituela etorri zen Villabonara. Aita eta aitona ere pilotariak izan zituen, eta berak ere bide bera hartu zuen. 1962. urtean Miamira (AEB) joan zen pilotan jokatzera, 63 urterekin itzuli zen Villabonara. REBEKA CALVO

## Agenda

### DEIALDIAK

- **Anoeta.** Kultur eta Kirol Astearen barruan, gaur, Osteoporosiari buruzko hitzaldia izango da, 18:00etan, udaletxeko areto nagusian.
- **Aduna.** *Gipuzkoaren jatorria eta historia* hitzaldia izango da kultur ekitaldien barruan, Aritzta kultur elkarteak aurkeztuta, gaur, 19:30ean, kultur aretoan.
- **Amezketak.** Kultur astearren barruan gaur, *Bizitza autonomorako trebetasunak* hitzaldia izango da, 17:00etan, kultur etxeko aretoan; eta *Gazta zati bat* filma, 20:30etik aurrera.

## Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa: Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28. Gauekoa: Etxebeste, J. M. Gernikako Arbola, 3. Telefonoa: 943 65 10 40.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia 5. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

**SUMINISTROS** 35 urteko esperientzia

**YANCI** ITURGINTZA eta BEROKUNTZA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Baimendutako instalatzaile eta mantentzailea

**Mugi zaitetzte!**

Euskal Autonomi Erkidegoko egurrezko eta pelleteko kalderentzako diru laguntzak hilabete honetan bukatzen dira eta.

· BIOMASA  
· AEROTERMIA  
· GEOTERMIA  
· EGUZKI ENERGIA TERMIKOA

IRTENBIDE ENERGETIKO BERDEAK

Pellet eta egurrezko kalderen erakusketa

Dirulaguntzak tramitatzen ditugu

Zaldubasa Industrialedea - 2 - IRURITA (BAZTAN) 948 580 109

ZERBITZU TEKNIKOA  
BARRAZKALDEAN

TATANO

